2015

# JABETZE ESKOLA

## OTSAILA - MAIATZA
## FEBRERO - MAYO

PROGRAMA



di·da zure balioen marka

arrasateko jabetze eskola

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
EMAKUME SAILA

emakume txokoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Departamento de Deportes y Acción Exterior

# ARGIBIDEAK

Berriro ere gonbidatu nahi zaitugu hurbil zaitezen emakumeontzako topaketa, prestakuntza eta hausnarketa gune honetara.

Gure errealitateari ikuspegi feminista batetik begiratzeko; kontzientzia hartzeko eta antolatzeko; sareak sortzeko; elkartzeko; eztabaidatzeko; geure eskubideen jabe egiteko; pertsonalki eta kolektibo modura indartzeko; gure parte hartze politikoa eta soziala errazteko eta bultzatzeko; emakume eta gizonen berdintasunean oinarritutako jendarte justu eta askotarikoa lortzeko…

Horretarako gunea izan nahi du Jabetze Eskolak. Zatoz, gure ateak pare-pare zabalik dituzu!

## ARGIBIDEAK:

**Izena emateko epea:**
otsailaren 2tik otsailaren 6a arte.

**Izena emateko ordutegia:**
Astelehenetik eguenera arte:
goizean 10:30-13:30
arratsaldean 15:30- 18:30
Egubakoitzean: 10:00-14:00

**Haurtzaindegi zerbitzua:** ikastaroetan parte hartzeko haurtzaindegi zerbitzua jarriko dugu, aldez aurretik abisatuz gero.

**Argibide gehiago Emakume Txokoan:**
Telefonoa: 943 79 41 39
emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net
www.emakumetxokoa.com
Jarraiguzu Facebook-en eta Twitter-en
(Arrasateko Emakume Txokoa)

# IKASTAROAK

## 1 KOMUNIKAZIOA ETA ASERTIBITATEA

**Irakaslea:** Pepa Bojó Ballester
**Noiz:** asteartetan (14 saio)
**Hasiera:** otsailak 10
**Ordutegia:** 15:30-17:30
**Hizkuntza:** gaztelania
**Matrikula:** 32€/37€

*Ikastaro honetan ikasiko dugu zelan erabili komunikazio, asertibitate eta entzuteko teknikak eta baliabideak, gauzak modu eraginkorragoan esaten ikasteko, gure emozioak egoki erabiltzeko, negoziatzen ikasiz gatazka egoerei aurre egiteko, arazoak eraginkortasunez konpontzeko…, eta saiatuko gara beste pertsonen eskariak eta gureak orekatzen. Horrek eragingo dio gure auto-kontzeptuari, eta igoko ditu gure autoestimua eta gure buruarekin dugun konfiantza eta segurtasuna, eta gure harreman pertsonalak hobetzen lagunduko digu.*

## 2 EZTABAIDATIK EKINTZARA

**Irakaslea:** Itziar Bastarrika Madinabeitia
**Noiz:** asteazkenetan, hamabostean behin (8 saio)
**Hasiera:** otsailak 18
**Ordutegia:** 18:00-20:00
**Hizkuntza:** euskaraz
**Matrikula:** 32€/37€

*"Iruditegi Feminista berria sortzen" ikastaroaren jarraipen gisa planteatzen da ikastaro hau. Lehenengo ikastaroan ondorioztatu genuen, iruditegi feminista berria sortzeko hausnarketa eta eztabaida handia behar dugula. Sortze hutsak ez baikaitu inora eramango…*
*Orain beraz, eztabaidatu nahi dugu: gorputzaz, generoaz, feminismoaz… eta ikasturte amaieran, Arrasateko herrian esku hartuko dugu!*

# INFORMACIÓN

Una vez más te proponemos acercarte y participar en este espacio de encuentro, reflexión y formación para mujeres.

Para observar nuestra realidad desde una perspectiva feminista; para tomar conciencia y organizarnos; para generar redes; para reunirnos; para debatir; para adueñarnos de nuestros derechos; para fortalecernos personalmente y como colectivo; para facilitar y fomentar nuestra participación política y social; para construir una sociedad justa y diversa basada en la igualdad de mujeres y hombres…

La Escuela de Empoderamiento quiere ser un espacio para todo ello. ¡Anímate, nuestras puertas están abiertas de par en par!

## INFORMACIÓN:

**Plazo de inscripción:**
del 2 al 6 de febrero

**Horario para la inscripción:**
De lunes a jueves:
mañanas 10:30-13:30 y tardes 15:30-18:30
Viernes: 10:00-14:00

**Servicio de guardería:** las actividades contarán con un servicio gratuito de cuidado de niñas y niños, avisando con antelación.

**Más información en Emakume Txokoa:**
Teléfono: 943 79 41 39
emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net
www.emakumetxokoa.com
Síguenos en Facebook y Twitter
(Arrasateko Emakume Txokoa)

# CURSOS

## 1 COMUNICACIÓN Y ASERTIVIDAD

**Formadora:** Pepa Bojó Ballester
**Fecha:** martes (14 sesiones)
**Inicio:** 10 de febrero
**Horario:** 15:30-17:30
**Idioma:** castellano
**Matrícula:** 32€/37€

*En este curso vamos a aprender técnicas de comunicación, de asertividad y de escucha y recursos que nos ayuden a expresarnos de una forma más eficaz, a manejar adecuadamente nuestras emociones, a enfrentar situaciones conflictivas aprendiendo a negociar, a resolver eficazmente los problemas…, intentando equilibrar las demandas de las demás personas con las nuestras. Esto va a redundar en nuestro auto-concepto, elevando la propia autoestima y la confianza y la seguridad en nosotras mismas, y va a ayudar a mejorar nuestras relaciones personales.*

## 2 DEL DEBATE A LA ACCION

**Formadora:** Itziar Bastarrika Madinabeitia
**Fechas:** miércoles, cada 15 días (8 sesiones)
**Inicio:** 18 de febrero
**Horario:** 18:00-20:00
**Idioma:** euskera
**Matrícula:** 32€/37€

*Este curso se plantea como una continuación del curso de "Creando un nuevo escenario feminista". En el primer curso se llegó a la conclusión de que para la creación del nuevo escenario feminista había que llevar a cabo una reflexión y un gran debate. Debido a que la mera creación no nos llevará a nada…*
*Por tanto, ahora queremos debatir: sobre el cuerpo, el género, el feminismo… y al final del curso, realizaremos una intervención en el municipio de Arrasate!*

IKASTAROAK

## 3 ADIMEN EMOZIONALA

**Irakaslea:** Nerea Redondo Otamendi
**Noiz:** asteazkenetan (10 saio)
**Hasiera:** otsailak 11
**Ordutegia:** 18:00-20:00
**Hizkuntza:** euskaraz
**Matrikula:** 32€/37€

*Sentimendu onak edo txarrak al daude? Zer egiten dugu lehenago pentsatu edo sentitu? Guztiok berdin sentitzen al dugu? Nola jakin zer sentitzen duen besteak? Nola bizi sentimendu desberdinekin? Nola garatu nire hizkuntza emozionala?*
*Ikastaro honetan, emozioak ezagutu eta identifikatzen ikasteko aukera edukiko dugu. Eta baita emozio guzti horiek, bai gureak eta baita beste pertsonenak, gure alde jartzeko aukera ere aztertuko dugu, aldaketarako eta garapen pertsonalerako aukera bihurtuaz.*
*Saioak praktikoak izango dira, banakako eta taldeko ariketak egingo ditugu, bakoitzak hausnarketarako eta aldaketarako tartea eduki dezan. Inor behartu gabe, noski!*



CURSOS

## 3 INTELIGENCIA EMOCIONAL

**Formadora:** Nerea Redondo Otamendi
**Fechas:** miércoles (10 sesiones)
**Inicio:** 11 de febrero
**Horario:** 18:00-20:00
**Idioma:** euskera
**Matricula:** 32€/37€

*¿Hay sentimientos buenos y malos? ¿Qué hacemos primero, pensar o sentir? ¿Todos sentimos de la misma forma? ¿Cómo podemos saber qué es lo que sienten los demás? ¿Cómo podemos vivir con diferentes sentimientos? ¿Cómo podemos desarrollar nuestro lenguaje emocional?*

*A través de este curso, te ofrecemos la oportunidad de aprender a conocer y a identificar las emociones. Además, analizaremos la forma de orientar todas esas emociones, tanto las propias como las ajenas, a favor de nosotras mismas, convirtiéndolas, así, en una oportunidad para el cambio y el desarrollo personal.*
*Las clases serán prácticas, llevaremos a cabo actividades individuales y grupales, para promover la reflexión y el intercambio. Por supuesto, ¡sin forzar!*

IKASTAROAK

## 4 AHOTS GABEKOEN AHOTSA. RAP-a jabekuntza feministarako tresna gisa

**Irakaslea:** Furia
**Noiz:** ostegunetan (14 saio)
**Hasiera:** otsailak 12
**Ordutegia:** 18:00-20:00
**Hizkuntza:** gaztelania
**Matrikula:** 32€/37€

*Rap-a Bronx (AEB) hegoaldean sortu zen 70. hamarkadan, eta afro-karibear eraginak jaso zituen. “Hip Hop” izenaz ezagutzen dugun kulturaren ahozko edo kantuzko adierazpena da. Rap mota ezberdinak dauden arren, funtsean, beti, pobreziarekin eta indarkeriarekin lotuta ageri da, estilo honen jaiotza-testuinguruaren ezaugarriak diren horiekin. Tailer honetan, emakumeok berariaz bizi dugun testuingurua landuko dugu, eta Rap-a erabiliko dugu ikasteko eta salatzeko tresna gisa. Emakume artean Rap-a egiteko gogorik bai?*



CURSOS

## 4 LA VOZ DE LAS SIN VOZ. El rap como herramienta para el empoderamiento feminista

**Formadora:** Furia
**Fechas:** jueves (14 sesiones)
**Inicio:** 12 de febrero
**Horario:** 18:00-20:00
**Idioma:** castellano
**Matricula:** 32€/37€

*El Rap nació en el sur del Bronx (USA), en la década de los años 70 y se nutrió de las influencias afro caribeñas. Se trata de la parte oral o cantada de la llamada cultura “Hip Hop”. A pesar de las diferentes maneras de hacerlo, el Rap se asocia esencialmente con la pobreza y la violencia que subyace al contexto histórico que lo vio nacer. En este taller trabajaremos el contexto específico que enfrentamos las mujeres, y usaremos el Rap como instrumento para aprender y denunciar. ¿Te apetece hacer Rap entre chicas?*

IKASTAROAK

## 5 ZAHARTZAROAZ GOZATZEN

**Irakaslea:** Inma Merino de Castro
**Noiz:** ostiraletan (12 saio)
**Hasiera:** otsailak 13
**Ordutegia:** 10:00-12:00
**Hizkuntza:** gaztelania
**Matrikula:** 32€/37€

*60 urtera iritsi gara, gertu dugu erretiroa, hemen ditugu ilobak eta behartu egiten gaituzte, edo geure burua behartzen dugu? Buruz buru geratu gara gure bikotearekin, edo galdu egin dugu bidean… Zenbat aldaketa! Eta horiekin bizi naizen bitartean ikusten dut zelan telebistak dioskun eder jarraitu behar dugula eta bizitzaren gauza interesgarriak gazteentzat baino ez direla. Lagundu! Zelan zahartu beste modu baten? Zelan lortu gure bizi indarra, gure esperientzia, gure borrokak galdu ez daitezen eta gure neska gazteak horiek baliatu ditzaten…?*
*Prozesu horren dimentsio guztiak jorratzeko espazioa dugu hau (gizartean, ekonomian, kulturan, psikologian, harremanetan, gorputzean...); prozesu hori da normala eta naturala, emakumeoi lagunduko diguna galerei eta nahigabeei aurre egiteko bidea aurkitzen eta, era berean, bizitzan ditugun aukerak eta gauza onak aurkitzen.*



CURSOS

## 5 ENVEJECER BONITO

**Formadora:** Inma Merino de Castro
**Fechas:** viernes (12 sesiones)
**Inicio:** 13 de febrero
**Horario:** 10:00-12:00
**Idioma:** castellano
**Matrícula:** 32€/37€

*Hemos llegado a los 60, la jubilación la tenemos encima, las nietas y nietos están llegando y nos exigen ¿o nos exigimos? Nos hemos quedado cara a cara con nuestra pareja o la hemos perdido… ¡Cuántos cambios! Y mientras los vivo observo cómo la televisión me anima a seguir guapa y cómo las cosas interesantes de la vida solo son para jóvenes. ¡Socorro! ¿Cómo envejecer de otra manera? ¿Cómo lograr que nuestra energía vital, nuestra experiencia, nuestras luchas no se pierdan y las chicas jóvenes la aprovechen…?*

*Este es un espacio donde poder abordar todas las dimensiones de este proceso (a nivel social, económico, cultural, psicológico, relacional, físico…) que es normal y natural para encontrar claves que permitan a las mujeres afrontar las pérdidas y duelos pero también las oportunidades y ganancias.*

IKASTAROAK

## 6 NIREKIN “NAHI DUT”!! Erotismoa eta tratu oneko harremanak

**Irakaslea:** Clara Wolfram Perez
**Noiz:** otsailak 28, martxoak 28, apirilak 18, maiatzak 9, maiatzak 30
**Ordutegia:** 10:30-14:00 eta 15:30-19:00
**Hizkuntza:** euskara
**Matrikula:** 32€/37€

*Tailer honetan gure desioarekin kontaktatuko dugu. Gorputza gure sentsazioen, emozioen eta pentsamenduen lurraldea da, gure bidea egiteko dugun ibilgailu onena. Ez da besteen beharrak asetzeko tresna bat, baina maiz hori barneratua dugu.*
*Tailer honetan geure buruari lehentasuna eman nahi diogu, erotismo eta gogoeta dinamiken bitartez, geure gogoak identifikatu eta geure beharrak asetzeko estrategiak martxan jarriz.*

*Tratu onaren ideia ardatz modura eraikitzen da saio hauetan, non gure harremantzeko moduak eta ereduak aztertzen ditugun. Nola askatu hain sartutako eskemetatik? Badira moduak geure gogo eta gorputzari lehentasuna emateko, eta tailer honetan martxan jarriko ditugu.*



CURSOS

## 6 SI QUIERO “CONMIGO”! El erotismo y las relaciones de buen trato

**Formadora:** Clara Wolfram Perez
**Fechas:** 28 de febrero, 28 de marzo, 18 de abril, 9 de mayo, 30 de mayo
**Horario:** 10:30-14:00 y 15:30-19:00
**Idioma:** euskara
**Matrícula:** 32€/37€

*En este taller contactaremos con nuestro deseo. El cuerpo es el territorio de nuestras sensaciones, nuestras emociones y pensamientos, el mejor vehículo que disponemos para desarrollar nuestra vida. No es un instrumento para saciar las necesidades de otras personas, pero a menudo lo tenemos interiorizado así.*

*En este taller pretendemos darnos prioridad a nosotras mismas, a través del erotismo y de las reflexiones dinámicas, identificando nuestras reflexiones y poniendo en marcha las estrategias para saciar nuestras necesidades.*
*En estas sesiones la idea del buen trato se construye como eje principal, donde analizamos nuestros modos y modelos para relacionarnos. ¿Cómo liberarnos de esquemas tan interiorizados? Existen modos para dar prioridad a nuestros deseos y a nuestro cuerpo, y en este taller estos se pondrán en marcha.*

## 7 FEMINISMOAK EZAGUTZEN IV

Ikastaro hau, 3 saioz osatua dago. Saioetan, edo saioren batean parte hartzeko aldez aurretik izena eman behar da.

### I FEMINISTAK MUGIMENDUAN, EUSKAL HERRIKO ERRONKAK

Saioa Iraola Urkiolak eta Miren Aranguren Etxartek dinamizatua
**Noiz:** otsailak 24
**Ordutegia:** 18:00-20:30
**Hizkuntza:** euskaraz
Doan

*"Feminismoa ez dago krisian" hitzetatik, lemetatik harago, errealitate dela deritzogu, zeinetan, azken hamarkadan, argi demostratu dugun feminismoa bizi bizirik dagoela. Edozein txoko eta bazterretan, edozein aldaketarako planteamenduetan ezinbesteko irizpide politikoan bilakatu da eta eredu sozial berri baten eraikuntzarako ezinbesteko osagaiak biltzen dituen ideologia eta borroka izanik. Geroz eta pertsona gehiago dira haien burua feministatzat dutenak, feminista gisa jarduten dutenak egunerokoan eta indar-ahalduntze hau, ez da bakarrik talde feministetan metatu, bizitza sozialeko eremu guztietara zabaldu da. Baina hau horrela izanik, mugimendu feministari erronka berriak agertu zaizkio, zeintzuk dira bada horiek Euskal Herrian.*

### II PROSTITUZIOA ETA FEMINISMOA

Tere Maldonado Barahonak dinamizatua
**Noiz:** apirilak 28
**Ordutegia:** 18:00-20:30
**Hizkuntza:** euskaraz
Doan

*Prostituzioa, feminismoaren barne eztabaida nabarienetakoa izan da aspaldidanik. Hasieran, feminismoak prostituzioa erakunde patriarkal gisa besterik ez zuen ulertzen eta ondorioz, borroka feministaren bidez desagerrarazi beharrekoa. Baina egun baten, prostituta batzuk hitza hartu zuten langile gisa zegozkien eskubideak defendatzeko, eta horrek sekulako eztanda suposatu zuen feminismoan. Aurrerantzean, bi jarrera nagusi agertuko dira: prostituzioaren abolizioa nahi dutenak, batetik, eta sexu zerbitzuak eskaintzen dituzten langileen eskubideak defendatzen dituztenak, bestetik. Oso garratza izan da bien arteko eztabaida. Baina egun, errealitate berri asko sortu dira eta ñabardura gehiago planteatzen dira. Saiatuko gara horietan murgiltzen.*

### III EMAKUME MUSULMANAK FEMINISMOEN ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO MUGIMENDUEN ARTEAN

Maya Amranek dinamizatua
**Noiz:** maiatzak 12
**Ordutegia:** 18:00-20:30
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
Doan

*Islamiar jendarteetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde diharduten mugimendu anitzei buruz jardungo dugu. Tartean, aztertuko ditugu feminismoa Mendebaldeko ikuspegi beretik aldarrikatzen duten mugimenduak eta feminismotik kanpo kokatzen direnak, eta feminismoa eta islama batzen dituen proposamen bati buruz ere hitz egingo dugu. Mugimendu horren oinarriak, helburuak, akademia eta militantziaren artean kokatzen den bere lan-metodologia, garapen espazioak, lorpenak eta etorkizunerako dituen erronkak aztertuko ditugu.*



## 7 FEMINISMOAK EZAGUTZEN IV

Este curso comprende 3 bloques. Para participar en el curso o en alguna de las sesiones es necesario apuntarse con antelación.

### I LAS FEMINISTAS EN MOVIMIENTO, RETOS DEL PAIS VASCO

Dinamizado por Saioa Iraola Urkiola y Miren Aranguren Etxarte
**Fecha:** 24 de febrero
**Horario:** 18:00-20:30
**Idiomas:** euskera
Gratis

*Creemos que las palabras de que el "feminismo no está en crisis", más allá de los lemas, es una realidad, en la que, durante estos últimas décadas hemos demostrado claramente que el feminismo está muy activo. Se ha convertido en criterio político imprescindible en cualquier lugar, en los planteamientos de cualquier modificación, siendo una ideología y lucha que agrupa los ingredientes imprescindibles para la construcción de un nuevo modelo social. Cada vez son más las personas que se consideran feministas, las que actúan como feministas en el día a día, y este empoderamiento de fuerzas no solamente se ha acumulado en los grupos feministas sino que se ha expandido a todos los ámbitos de la vida social. Pero aunque esto sea así, el movimiento feminista tiene nuevos retos; pero ¿cuáles son estos en el País Vasco?*

### II PROSTITUCION Y FEMINISMO

Dinamizado por Tere Maldonado Barahona
**Fecha:** 28 de abril
**Horario:** 18:00-20:30
**Idioma:** euskera
Gratis

*La prostitución ha sido uno de los debates más destacados dentro del feminismo. Al principio, el feminismo contemplaba la prostitución solamente como una organización patriarcal, y, en consecuencia, como algo a destruir a través de la lucha feminista. Cierto día, varias prostitutas reclamaron los derechos que les correspondían como trabajadoras, lo cual supuso un antes y un después dentro del feminismo. Desde ese momento, principalmente han predominado dos posturas: por un lado, la que defiende la abolición de la prostitución y, por el otro, la que defiende los derechos de las trabajadoras de servicios sexuales. Entre estas posturas ha existido un duro debate. Sin embargo, en la actualidad, han surgido nuevas realidades que plantean nuevos matices; trataremos de profundizar en ellas.*

### III MUJERES MUSULMANAS ENTRE FEMINISMOS Y MOVIMIENTOS POR LA IGUALDAD

Dinamizado Maya Amrane
**Fecha:** 12 de mayo
**Horario:** 18:00-20:30
**Idioma:** castellano
Gratis

*En esta charla, nos acercaremos a los diferentes tipos de movimientos que trabajan por la igualdad entre hombres y mujeres en las sociedades islámicas, desde aquellos que se reivindican del feminismo tal y como se conoce en Occidente a aquellos que no se reconocen en el término feminismo, pasando por una propuesta que une feminismo e Islam. Conoceremos los fundamentos de este movimiento, sus objetivos, su metodología de trabajo entre academia y militancia, los espacios en los que se desarrolla, sus logros y sus retos futuros.*

TAILERRAK

## 1 AUTODEFENTSA FEMINISTA

**Irakaslea:** Alaitz Mañes Payo
**Noiz:** martxoak 21 (10:00-14:00 eta 15:30-19:30) eta 22 (10:00-14:00)
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Matrikula:** 15€/17€

*Tailer honetan, emakumeok indarkeria sexistarekiko ditugun bizipenak konpartitu eta biltzeko helburua izango dugu, esperientzia ezberdinak partekatu eta iritzi trukaketaren bidez. Elkar entzutea eta beldurra edota emozio ezberdinel buruz lasai hitz egiteko tartea izango dugu, indarkeria sexista identifikatu, nola funtzionatzen duen hausnartu eta aurre egiteko bideak eskainiz.*

## 2 HEMEN DITUGU JADA ALABA-SEMEAK ETA BAITA BIKOTEKIDEAREKIN DESADOSTASUNAK ERE… Erantzunkidetasuna lortzeko gakoak

**Irakaslea:** Itziar Gandía Quintanilla
**Noiz:** maiatzak 16, 23 eta 30 (10:00-14:00)
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Matrikula:** 15€/17€

*Emakume gisa kokapen propio bat bilatzeko espazioa da hau; amatasun eramangarriagoa eraikitzen laguntzea helburu duena, eta bizitzan abiatu duzun proiektu berri horrek, alaba-semeak, zuretzat dituen esanahiak adierazteko eta partekatzeko aukera emango dizuna. Eta, batez ere, jendarteak sortu duen ideala, emakumeontzako ia ezin iritsizkoa den ideal hori, desmuntatzeko espazioa da, honela, ama erreal izatera heltzeko. Proiektu berri horretan, bikotekideak (baldin badago) duen lekua aztertuko dugu, eta, batez ere, emakume garen aldetik, gure lekua zein zen.*

TAILERRAK

## 3 ZIBERFEMINISMOA 2.0

**Irakaslea:** Susana Manzanedo Aketxe
**Noiz:** maiatzak 23
(10:00-14:00 eta 15:30-19:30)
**Hizkuntza:** euskaraz
**Matrikula:** 15€/17€

*Genero estereotipoek Zientzia eta Teknologia gizonezkoekin lotzen dituzte eta honek emakume asko gai horietatik aldentzea ekartzen du. Gainera, esparru publikoa tradizionalki maskulinoa izanagatik, emakumeok oztopo gehiago topatzen dugu gure ahotsa plazaratzerako orduan (bai mundu fisikoan bai Interneten ere) eta honek desoreka teknologiko bat ekartzen du.*
*Tailer honetan, besteak beste, Interneten erabileran emakumeen eta gizonen artean ematen diren desberdintasunak, emakumeen kontra ezartzen ari diren indarkeria mota berriak eta Internet eta sare sozialek jabekuntzarako eta antolaketarako eskaintzen dizkiguten aukerak aztertuko ditugu.*



TALLERES

## 1 AUTODEFENSA FEMINISTA

**Formadora:** Alaitz Mañes Payo
**Fecha:** 21 de marzo (10:00-14:00 y 15:30-19:30) y 22 de marzo (10:00-14:00)
**Idioma:** castellano
**Matrícula:** 15€/17€

*En este taller, el objeto será compartir y recoger las vivencias que nosotras las mujeres tenemos respecto de la violencia sexista, compartiendo diferentes experiencias y a través del intercambio de opiniones. Tendremos la ocasión de hablar largo y tendido sobre las diferentes emociones o miedos escuchándonos mutuamente, de identificar la violencia sexista, reflexionando de cómo funciona y facilitando las vías preventivas.*

## 2 LAS HIJAS E HIJOS YA ESTÁN AQUÍ Y EL DESECUENTRO CON LA PAREJA TAMBIEN…. Claves para la corresponsabilidad

**Formadora:** Itziar Gandía Quintanilla
**Fecha:** 16, 23 y 30 de mayo (10:00-14:00)
**Idioma:** castellano
**Matrikula:** 15€/17€

*Este es un espacio para la búsqueda de un lugar propio como mujeres desde donde poder construir una maternidad más llevadera. Donde podamos expresar y compartir el significado que tiene para cada una un nuevo proyecto en su vida: la hija o hijo. Y sobre todo, donde podamos desmontar el ideal, ese ideal creado socialmente prácticamente inalcanzable para las mujeres, para convertirnos en madres reales. Analizaremos el lugar que ocupa la pareja (si la hay) y sobre todo cuál es mi lugar, como mujer, en este nuevo proyecto.*

TALLERES

## 3 CIBERFEMINISMO 2.0

**Formadora:** Susana Manzanedo Aketxe
**Fecha:** 23 de mayo (10:00-14:00 y 15:30-19:30)
**Idioma:** euskera
**Matrícula:** 15€/17€

*Los estereotipos de género asocian la Ciencia y la Tecnología con los hombres y esto provoca que muchas mujeres se alejen de estos temas. Además, debido a que tradicionalmente el ámbito público es masculino, las mujeres nos encontramos con muchos más obstáculos a la hora de hacer pública nuestra opinión (tanto en el mundo físico como en Internet) y esto provoca un desequilibrio tecnológico.*
*En este taller, entre otros, se analizarán las desigualdades que se dan entre hombres y mujeres en el uso de Internet, los nuevos tipos de violencia que se están implantando contra las mujeres y las posibilidades que Internet y las redes sociales nos ofrecen para el empoderamiento y para la organización.*